

PRENTSA OHARRA

Markina-Xemeingo Helduen II. Trikitixa Txapelketa aurkeztuko da azaroaren 29an

**Finala 2019ko maiatzaren 11n izango da, UNI frontoian,
Okela Egunaren egitarauaren barruan**

Markina-Xemeingo II. Trikitixa Txapelketa aurkeztuko da azaroaren 29an, osteguna, iluntzeko 20:00etan, Kontzejupean. Aurkezpenaren ostean, musika izango da Oxabi taldearekin.

Txapelketan izena emateko epea zabalik dago abenduaren 31rarte. Parte hartu nahi dutenek email bat bidali beharko dute mxtrikititxapelketa@gmail.com helbidera, izen-abizenak, jaiotze data, herria eta kontakturako telefono bat zehaztuz.

Txapelketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da 22 urte beteta izatea edo 2019.urtean 22 urte betetzea. Horrekin batera, trikitilari eta panderojole batek osatutako bikoteek parte hartu ahal izango dute txapelketan.

Izena ematen duten bikote kopuruaren arabera, bi edo hiru kanporaketa jokatu dira finalaren aurretik. Kanporaketak behar izanez gero, aurrerago zehaztuko dira datak eta lekuak. Finala 2019ko maiatzaren 11n izango da, UNI frontoian, Okela Egunaren egitarauaren barruan.

Zortzi bikoteek hartuko dute parte finalean, eta hiruna pieza jo beharko ditu bakoitzak. Bi aukera hauen artean hautatu beharko dute parte-hartzaileek: 1) trikitixa + arin-arina + balsa edo rantxera euskarazko hitzekin. 2) porrusalda + fandangoa + balsa edo rantxera euskarazko hitzekin.

Finalean izango diren zortzi bikoteek saria jasoko dute: 1.saria (1.000€ eta txapelak); 2.saria (700€ eta oroigarriak); 3.saria (600€ eta oroigarriak); 4.saria (300€); 5.saria (250€); 6.saria (250€); 7.saria (250€); eta 8.saria (250€). Kanporaketetan parte hartu eta finalerako sailkatzen ez diren bikoteek ere dietak jasoko dituzte.

Iaz antolatu zen lehenengoz Markina-Xemeingo Helduen Trikitixa Txapelketa, Udalaren eta Jai batzordearen ekimenez. Gaur egun Euskal Herrian antolatzen diren helduen trikitixa txapelketak gero eta urriagoak direla ikusita, trikitilariak ezagutzera eman eta dagoen maila erakusketa da txapelketaren helburua, trikitixaren munduari bultzada bat emanez.

Markina-Xemeinen, 2018ko azaroaren 26an